

Udako eta udazkeneko hasierako hilabeteak oso egokiak dira bizikleta erabiltzeko. Hori dela eta oso garrantzitsua da hainbat gomendio kontutan hartzea:

TXIRRINDULARI, GOGORATU!

Hamasei urte baino gutxiagoko txirrindularientzat derrigorrezkoa da kaskoaren erabilera. Gainontzekoentzat, eta baita bidaiarientzat, soilik izango da derrigorrezkoa hiriarteko bideetan.

Argien erabilera derrigorrezkoa denean, txirrindulariek jantzi islatzailerren bat eraman beharko dute, gainerako gidariek eta beste erabiltzaileek 150 metroetako distantzian ikusteko modukoan, hiriarteko bideetan ibiltzen badira.

Gainera Aranguren Ibarreko Udalaren Trafikoaren ordenantzaren 16. artikulua araberak, debekaturik dago bizikletak gauz ibiltzea, aurreko argia eta atzeko islatzailea, gutxienez, ez badaramatzate.

GIDARI, GOGORATU!

Txirrindulari bat aurreratzerakoan gutxienez 1,5 m-ko tartea gorde behar duzu.

Atera zure bizikleta kalera. BERRITASUNAK

Aurten familientzako 3 egonaldi landetxe batean zozketatuko dugu. Aukerak:

1. Aukera: Artze Ibarra, landa-turismo batean, baserri eta baratza ekologikoak. Bertan animaliak zaintzeko lanetan parte hartzeko aukera izango da, baita baratza lantzeko ere. Etxeko bazkari ekologikoa barne.
2. Aukera: Aterpe bat Baztanen. Baztan Abentura parkearen sarrera barne. Bertan tirolina handiak eta txikiak, 3 urtetik gorako haurrentzat, daude. Etxeko bazkari tradizionala.

Oraindik parte hartzeko garaia da. Ebaki txartel hau eta jarraitu zure zigiluak jarriz Udaletxera, Kiroldegira,

Kultur Etxera, Aranetxeara, San Pedro eskolara eta Ttipi Ttapara zoazen bakoitzean. Behin osatuta Kiroldegira edo Udalera eraman (bertan txartelak eskatu ditzakezu). Epea abenduaren 31an bukatzen da. Parte hartu!

Mugikortasun iraunkorraren europako astea 2014

Urtero irailaren 16tik 22ra, sensibilizazio kanpaina hau ospatzen da, hirietan autoen erabilera irrazionalak, bai osasun publikoarentzat bai ingurugiroarentzat, dituen ondorio kaltegarriak salatzeko eta garraio iraunkoragoaren onurak zabaltzeko, hala nola, garraio publikoa, bizikletak eta oinez egindako bidaiak. Aurtengo lema Gure **kaleak, gure hautaketak**, administrazioak eta herritarrak kaleak eta espazio publikoa jendearen alde berriro diseinatzeko eta berreskuratzeko beharrari buruz elkarrekin gogoeta egiteko.

Ospatzeko, Naturguneatik irailaren 21ean **Familiak bizikletaz** jardunaldia antolatu dugu, hausnarketa bultzatzeko eta bizikleta gure joan etorrietan gehiago erabiltzeko. Informazio gehiago "Hurrengo jarduerak" atalean.



2014ko ingurumenaren astea



1 barreko Ingurumenaren Astea, aldez aurretik familiek emandako jostailu eta liburuen bigarren eskuko elkartasun azoka ospatu zen. 244,80 € bildu ziren eta Vida Nueva Elkartearen ordezkari bati eman genizkion. Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen aterpea emateko Zirizan egingo den eraikin berri baten eraikuntzan laguntzeko erabiliko da.

Nombre / Izena:

Apellidos / Deiturak:

Dirección / Helbidea:

Teléfono / Telefonoa:

Fecha de Nacimiento / Jaioeteguna:



La participación en el concurso supone la plena aceptación de las bases del concurso.

Lehiaketan parte hartzeak oinarrien onarpena dakar.

**NATURGUNEA****Mutiloa plaza z/g
(Udaletxe berria)****Lehen solairua****Telefonoa 948151382****medioambiente@aranguren.es**

Nekazaritza onbideratzaileari buruzko ale berezia

Onbideratzaile, latinetik *regenerare*, gainbehera etorri den zerbait onera ekartzea esan nahi du.

Natura ikusteko erabateko aldaketaren ondorioz jaiotzen da Nekazaritza Onbideratzailea. Mundua ikusteko ikuspegiaren aldaketa: errekurtsoen mugatu gabeko erretserba izatetik, bizitza bere osotasun organiko, bizia eta espiritual ikustera.

Proposamen honek nekazaritza bizitzaren bilbearekin lotzen du. Naturarekin ditugun harremanak berritu, bere aurka borrokatu ordez, berarekin batera lan egiten hasteko. Elkartasun horri esker bi aldeek irabazten dute

Agrotoxikoak eta pozoinak ez erabiltzea aurrera pausoa da... baina ez da aski. Ez da soilik materien aldaketa bat (kimikoen ordez organikoa), baizik eta sistemaren erabateko aldaketa, ekoizpenarena...baita egiteko pentsatzeko eta erabakitzeke era aldatu behar dira. Horrela, alde batetik naturak berak duen onbideratzeko ahalmena indartzen da eta, beste aldetik produktu ekologikoen prezioak ez dira jende gehienarentzat baztertzailak izango.

Nekazaritza Bersortzailea, ordea, honako hau da:

- Onbideratzailea ekologiararen aldetik: zerbitzu ekosistemikoen indarra berreskuratzen ditu.



- Errentagarria ekonomiaren aldetik: gastu aldagarriak asko murrizten ditu eta etekinak handiagotzen ditu.

- Lotzailea gizartearen aldetik: tokian tokiko enplegu eta aberastasuna sortzen ditu, eta pertsonak batzen ditu ikuspegi berri baten inguruan.

Nekazaritza Bersortzailea lurrarekin daukagun harreman aldaketa da. Urte betean naturak sortzen 300 urte baino gehiago behar duen lur emankorra galtzea oztopatzen du eta gure lur bizia egiten laguntzen digu.

Giltza lurrean, eta dinamika naturalak handitzean dago, hori dela eta esku-hartze onbideratzaileen helburuak lurzorua- ren karbono organikoaren maila handitzea da,, emankorrigo izan dadin eta ur gehiago gorde dezan. Hori lortzeko soilik beharrezkoak diren esku-hartzeak eta makineria egokia erabiliz egingo dira eta, naturan gertatzen den bezala, animalien zerbitzuak aprobetxatuko dira.

Gehiago ikasi nahi baduzu ezin duzu galdu paregabeko aukera hau, etorri Jairo Restrepok Ibarrean emango duen ikastarora. Informazio gehiago "Hurrengo Jarduerak" atalean.

Hurrengo jarduerak

Izen emateak 012ra deituaz

Iraila

Ikastaroa: Nekazaritza onbideratzailearen abezea

Ikastaro honek gaur eguneko nekazaritzan erabili ahal izateko lanabesak eskaintzen ditu. Horri esker naturaren alde lan egingo dugu, laborantzen produkzioa eta kalitatea hobetuko ditugu, lurraren emankortasuna birsortzen dugun batera. Aldi berean, Nekazaritza ekologiko eta onbideratzailearen oinarri, helburu eta estrategiei buruzko hausnarketa egiteko aukera emango digu.

Irailaren 23, 24 eta 25ean Ilundainen. 9.30etik 13.30era eta 15.30etik 19.30era.

Irakaslea: Jairo Restrepo, Nekazaritza Organikoan eta Landa Garapen Iraunkorrean aditua eta Latinoamerika, Karibe, Australia, Afrika eta Europarako nazioarteko aholkularia. Ikastaroan landuko diren gaiak buruzko informazio gehiago nahi baduzu Udaleko webgunea bisitatu.

Matrikula: 90 € erroldatuak, 130 € erroldatu gabek. Badago bertan bazkaltzeko aukera; menuaren prezioa 30 € hiru egunetarako. Izen emateak **irailaren 17a arte**.

Familiak bizikletaz


Naturaguneatik irailaren 21ean Familiak bizikletaz jardunaldia antolatu dugu, hausnarketa bultzatzeko eta bizikleta gure joan etorrietan gehiago erabiltzeko.

Egitaraua:

Irteera Mutiloa Plazatik 10,45ean, ibilaldiak:

1. ibilbidea: Mutiloa-Zolina-Taxoare
2. ibilbide txikia: Mutiloa-Taxoare

13:00etan paella ekologikoa Taxoareko parkean (produktu ekologiko eta bertakoak) Bizikleta tolesgarrien zozketarako zigilatutako txartelak emango dira. Izen emateko epea irailaren 17a arte. **Izen ematea doakoa da, baina Aranguren Ibarreko**



Elikagaien Bankurako jakien ekarpena eskertuko da. Ondorengo beharren zerrendan aipatzen diren horietatik bat edo bi ale. Beharrak: haragi edo arrain kontserba-latak. Jakiak egun honetan bertan ekarriko dira.

Animatzen zaituztegu zuen bizikletan banderatxoak edo kartelak bizikleta erabileraren onurak adierazteko lema eramatera, hala nola aurreko urteetan Atera zure bizikleta kalera kanpainaren banatutako kamisetak eta txanoak janztera ere. Horietako 3 lema edo ekipamendu onenek opari bana jasoko dute.

Urria

Zakatina

Urriaren 12an, igandea, 12.00etatik 14:00etara Mutiloako Mutiloa Plazan

Zakatinak dirurik gabeko azokak dira; behar ez duzun baina **egoera onean dagoen** guzti hori ekarri eta zuk ere eraman nahi duzun zerbait aurkituko duzu: arropa, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, jostailuak... Haur eta helduentzako doako tailerrak egonen dira. Zakatineko laguntzailea izan nahi duzu? Deitu 665862118 telefonora eta jarri zaitez Milarekin harremanetan edo Naturguneara deitu edo bidali e-posta.

Ibarreko fauna ezagutu

Arrastoen bidez (aztarnak, lurraldearen markaketa, janari-hondarrak...), ekosistema ezberdinetan bizi diren animalien presentzia aurkitzeko ibilaldi gidatua. Publiko guztiarentzako esperientzia.

Urriaren 19an, igandea, 10:30ean Ilundainen. Iraupena: 2 ordu gutxigorabehera. Doako izen ematea **urriaren 15era arte.**

Seitan egiteko tailerra

Seitan Txinan sortutako elikagaia da. Gariaren glutenez eginda dago, proteina asko ditu eta kolesterol gutxi. Animalien jatorrizko proteinen alternatiba. Tailer honetan, Elisa Ayapek erakutsiko digu nola egiten den era artesanalean eta produktu ekologikoekin.

Urriaren 28an, 16.45etik 18.30era, San Pedro Ikastetxe Publikoan. Matrikula: 8 € errolatutako familientzat eta 12 € errolatu ez daudentzat. Izen emateak **urriaren 22ra arte.** Haurtzaindegi zerbitzua, 5 € familiako.

Azaroa

Mutiloako nekazal-azoka gardenen. produktu ekologikoak, bertakoak eta garaikoak.

Erantzukizunez egindako kontsumoa kontsumorik logikoena dela uste dugu. Garaiko produktuak, bertakoak eta ingurunearekiko begirunez lortuak. Bertan aurkituko diren produktuak zuzenean nekazari eta abeltzainei erosteko aukera egonen da. Jende guztiarentzako tailerrak egongo dira.

Azaroaren 2, igandea, 10:00etatik 14:00etara, Mutiloan.

Aste bat lehenago Aranguren Ibarreko webgunean eta Aranguren Telebistan parte hartzaileen zerrenda eta tailerren gaiak argitaratuko dira.

Tailerra: nola ulertu argiaren erreziboa

Badut aukera kontratatutako potentzia elektrikoa aldatzeko? Nondik dator kontsumi-

tzen dugun energia? Nori ordaintzen diogu energia elektrikoa? Nola neur dezaket nire etxebizitzaren kontsumoa?

Taxoare, azaroaren 4ean, 19.00etan. Gutxigorabeherako iraupena: 1.15 ordu. Emaila: Xabier Celaya, Ingeniari Tekniko Industrial.. Izen emateak doakoak izango dira. **Urriaren 29ra arte**

Esne begetala egiteko tailerra

Laktosari intolerantzia, arazoak kolesterolarekin, dieta beganoak... edo beste elikagai osasuntsu eta nutritiboak ezagutu nahi badituzu. quinoaz, oloz, kokoz, alpistez edo sesamoz egindako esnea egiten ikasiko duzu, baita beraien propietate eta erabilerak ere. Azaroaren 11an eta 13an, 16:45etik 18:15era, San Pedro Ikastetxe Publikoan. Matrikula 10 € errolatutako familientzat eta 15 € errolatu ez daudentzat. Emailak David Guibert eta Haizea Arias, "Vivencia vegana" blogaren egileak.. Haurtzaindegi zerbitzua, 5 € familia bakoitzeko. Izen emateak **azaroaren 5a arte.**

Hondakinen prebentziarako europar astea azaroaren 22tik 30era.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen helburua da Europa osoan hondakinen sorrera prebenitzeko ekintza jasangarriak sustatzea, kontsumo-ohituren eta ingurumen-eraginaren arteko lotura estua agerian utzita.

Aste horretarako jarduera asko prestatzen ari gara hala nola haur jantzien konponketa sortzailearen tailerra, berriro erabiltzeko pixoi-halen azalpena, konpostajea... eta askoz gehiago. Azaroaren hasieran aterako da publizitatea.

Ingurumen baliabideak



Gomendatzen dizugu arrain eta marisko kontsumo arduratsuetan Gida: **Sin Mala Espina**, Libros en Acción Argitaletzetik. Bertan gure etxeetan gehien kontsumitzen diren espezieak ebaluatzen dira, jasaten dituzten eraginak, zeintzuk diren iruzur ohikoenak eta hautaketa arduratsua- go egiteko aholkuak ere biltzen dira. Gainera, gaur egungo arrantza produkzioaren eta kudeaketaren arazoei buruzko informazioa agertzen da.

Ibarreko ikastetxe publikoetako jantoki osasungarriak programan berritasunak

Elikagai ekologikoen kontsumo eta ekoizpenari buruz informazioa eta askoz gehiago urrian aterako den Ekobuletinean aurkituko duzu. Udaleko webgunetik deskargatzeko aukera izango duzu edo, bestela, Naturguneara posta bidaliz.



San ferminetan aurkitutako apo-hontzak



Batuetan animalia basatiak aurkitzen ditugu eta ez dakigu zer egin. Hori da San Ferminetan Iruñean aurkitutako 3 apo-hontzen kasua.

Apo-hontza (*Otus scops*), gaueko hegazti harrapari txikia da (20 cm) Iberiar Penintsulan hazten du eta abuztuan Afrikara migratzen da negua pasatzeko. Batez ere, intsektuez elikatzen da, baina, ahal badu sagu txikiak ere harrapatzen ditu.

Zer egin behar dut animalia basatia aurkitzen badut?

Ilundaingo Animalia Basatien Errekuperaziorako Zentrotik gogorarazten digute garrantzitsuena 112ra deitzea dela. Hortik zentroko teknikari batekin harremanetan jarriko gaituzte eta horrek, espeziaren arabera, behar ditugun aholkuak emango dizkigu: hegaztia bada kabira eramatea aukerarik dagoen ikusiko da, bestela zuhaitz edo teilatu batean...kabitik gertu geratzen bada, bizirik irauteko aukera handiagoa izango da gurasoek janaria ematen jarraitu ahal izateko. Eguraldi txarraren ondorioz edo oraindik prest egon gabe, hegan egiten hasten direnean erortzen dira hegaztiak habietatik...

Animalia zauriturik badago Nafarroako Gobernuaren langileek bere ardurapean hartuko dute zentrorera era-

mateko eta hor zaintzen dute berriro naturan libre utzi ahal izateko. Bitartean kar-toizko kutxa batean sartzea eta leku ilun eta lasaian uztea gomendatzen da. Inoiz egin behar ez duguna gure kabuz elikatzea edo haztea da, alde batetik animalia basatia arrakastaz hazteko eskarmentu handia behar delako eta beste aldetik hori lortzen bada zein motatako bizi kalitatea eskaintzen ari gara animalia basatia gatibu mantentzen badugu? Eta moralaren aldetik, urtero Afrikaraino bidaia egiten duen apo-hontza bezalako espezie bati, giltzapean bizitzera kondentzea morala al da? Gainera egoera askotan berekin isun handia duen delitua da, animalia basati askok babesturik baitaude.

Zer gertatuko da San Ferminetako apo-hontzekin?

Oraingoz Ilundaingo Basafauna Oneratzeko Zentroan daude; hirurak aurrera doaz eta prest daudenean, txitoaren lumatxa galtzen dutenean hain zuzen, askatuko ditugu eta horrela beste Apo-hontzekin batera aste gutxi barru Afrikako bidea har dezaten udaberrian berriz itzultzeko.

Lehiaketak

Aranguren Ibarreko ingurumen argazkigintza lehiaketa

Argazkiak aurkezteko epea irailaren 23tik urriaren 21era egongo da irekita. Aurtengo lehiaketaren lema "Diruarekin erosi ezin daitekeenaren balioa" dela gogorarazten dizuegu.

Argazkiek Aranguren Ibarreko ingurune naturala erakutsi beharko dute, beraiekin gure ingurunearen edertasunaz gozatzeko aukera izan dezagun.

Eskatu oinarriak Udaletxean edo jaitsi www.aranguren.es helbidean.



29.Buletinaren "Ezagutu Ibarra" zozketaren irabazlea: Ana Sorbet Villanueva. Zorionak!

Bioaniztasuna eskolako baratzean



San Pedro Ikastetxeko baratza laguntzaile naturalak behar ditu landareentzako kaltegarriak diren intsektuetatik babesteko. Lehen Hezkuntzako, lehen zikloko gazte-erazko haurrek, irakasle eta Naturgurenearen teknikoaren laguntzarekin, txori intsektiboroetarako kabi kutxa jarri zuten gertuko zuhaitz batean. Kaskabeltz, amilotx edo beste edozein hegazti intsektiboroen gustukoa izango dela esperoan gaude eta hala bada, hurrengo udaberrian bertan bere habia egin dezan.

Ekologia erosago praktikatzeko proposamenak

Bartzeko landareak barraskiloetatik babesteko erremedio ekologikoak: birrintutako arrautzen oskolak edo errautsak erabili, babestu nahi dituzun landareen inguruan zabaltzen badituzu barraskiloek ez dituzte zeharkatuko. Beste trikimailu bat: garagardoa gustuko dutenez gero, jarri edari hau sakonera gutxiko ontzietan eta hortik bildu ditzakezu.

